



### 3 KULTURA

#### Nazioarteko bazkaria azaroaren 15ean Michelinen

Sasoeta-Zumaburu ikastetxean egin da azkeneko bi urteetan nazioarteko bazkari multikulturala. Ekitaldiaren arrakasta ikusita, Burunzpe guraso elkarteko kideek herri osora zabaldu dute hitzordua aurten, Udalaren laguntzarekin. Michelingo kirol gunean izango da, hilaren 15ean, 13:30etatik aurrera.

### 4-5 BURUNTZALDEA

#### Euskararen transmisioaren balioez

Duela bi hamarkada sortu zen Hik Hasi proiektu pedagogikoa; formazioa eta hezitzaileei zuzendutako Hik Hasi aldizkaria ditu bizkarrezurrak. Joxe Mari Auzmendi hernaniarrak aldizkaria koordinatzen du, eta lan taldeko kidea da Arantzazu Muñoa zeraindarra. Euskararen transmisioak balio asko dituela nabarmetzen dute, eta hiru direla oinarriak: etxea, eskola eta herria. Duela hiru urte eta erdi are gehiago sakondu zuten etxearena, gurasoei zuzendutako Hazi Hezi aldizkaria argitaratzen hasiz.



Gogotik gozatu zuten ikusleek Antonio Mercero aretoan asteazkenean, Lan eta Lan antzerki taldekoek egindako kafe-antzokian.

## 18 urteko ibilbidea ospatzen

Irakurketa dramatizatua egingo dute bihar kultur etxean, 19:30ean

Badira 18 urte HHI-EPako ikasle ohi batzuk Lan eta Lan antzerki taldea sortu zutela eta, urtemuga berezi hori ospatzeko, hainbat ekitaldi burutzen ari dira aste honetan. Ia bi hamarkada hauetan erabilitako materialarekin erakusketa ireki zuten asteartean, kafe-antzokia egin zuten asteazkenean eta 'El viejo celoso' taularatu atzo, kultur etxean.

**H**amargarren eta hamabosgarren urteurrenaren ez zituzten ospatu Lan eta Lan antzerki taldeak; orain arte ez egindakoak aurten burutzea erabaki dute, 18 urte betetzen dituzten honetan. Aste honetan hasi dituzte ospakizunak, hurrengo astera arte luzatuko direnak.

Asteartean oholtzatik erakusketa aretora igaro ziren, Antonio Mercero gunean urte hauetan guztietan erabilitako materiala erakutsiz. Argazkiak, atrezzoak, antzerkiak iragartzeko kartelak... Denetik

bildu dute Lan eta Lan taldekoek erakusketan. "Hainbat material kutxatan gordeta utzi behar izan dugu, dena erakusteko tokirik ez daukagulako", adierazi zuen asteartean Ana Miranda zuzendariak, inaugurazio ekitaldian.

Ekitaldi horretara gerturatu zirenek antzerki taldekoek irakurritako hainbat olerkiz gozatu zuten, meriendatxoa egitearekin batera; txokolatezko pastak eta ardo goxoa eskaini zizkieten ikusleei.

Asteazkenean ere herritar andana bildu zen Antonio



Hainbat olerki irakurri zituzten antzerki taldeko kideek asteartean.

Mercero aretoan; kafe-antzokia egin zuten antzerki taldekoek. Kideak banan bana irten ziren eszenatoki inprobisatura bakarriketarako egitera; hainbat barre-algara eragin zituzten ekitaldira hurbildu ziren ikusleen artean.

Atzokoan Manuel Lekuona kultur etxearen oholtzara igo ziren, Cervantesen 'El viejo celoso' lana antzeztera. Bihar ere bertan ariko dira, irakurketa dramatizatu saioa egingo baitute 19:30etik aurrera. Sarrerek 3 euro balio dute.

**NOAUA!ren KULTURALDIA 2015**  
Usurbilen azaroaren 6tik 15era

- azaroak 6, OSTIRALA **KONTZERTUA**  
"M. Urdangarin" 20:00etan Sutegin
- azaroak 8, IGANDEA **ZINEMA PIKADERO**  
19:00etan Sutegin
- azaroak 9tik 15era **ERAKUSKETA**  
"LAUKI" Joseba Larretxe. Liburutegian
- azaroak 12, OSTEGUNA **HITZALDIA**  
"Argiaren alaba" 19:30etan Potxoenean
- azaroak 13, OSTIRALA **BERTSO-AFABIA**  
21:00etan Artzabalen
- azaroak 14, LARUNBATA **ANTZERKIA**  
"Arrastoak" 20:00etan Sutegin
- azaroak 15, IGANDEA **IBILALDIA**  
10:00etan Arratzainen



## Neure kabuz



## Ane Labaka

## Irentsi

Aurreko astean gertatu zen, Nafarroa Oinezeko gertakariak guztiok harritu ostean. Orduetik, burutik irudia kendu ezinik nabil.

Astearte izango zen, edo asteazkena. Nonahikoa izan zitekeen ikastetxe batetara hurbildu nintzen presaka. Ikasle bat gerturatu zitzaidan pasilloan gelara sartzerako, mutiko bat, eta irri bihurri batez esan zidan esku artean zeukana erakutsi nahi zidala. Altxor bat bailitzan gordetzen zuen hura pegatina txiki bat zen eta pozik kontatu zidan jolas garaian jan zuen pipa paketea topatu zuela.

Ez nuen erantzun egokirik ematen jakin. Ezintasunez, esku artean zeukana gordetzeko esan nion, nik ez nuela begien parean ikusi nahi.

Ez zen pegatina bat soilik. Iru-dian bi pertsona agertzen ziren; bi ikono, bata neska eta bestea mutila zela nabarmentzeko moduan. Ikonoetako bat komunaren gainean eserita ageri zen, bestea zutik, komuneko kanpoaldean atearren gaineko zirrikitutik barrukoari begira; zelatan. Ez dago esan beharrik nor zen nor, ezta?

Mutikoari barregura eragiten zion irudiak. Niri kezka. Eta beldurra. Eta inpotentzia. Kezka emakume baten espazioa horrenbesteko zilegitasunez inbaditu daitekeela aditzera emateak. Beldurra intimitatea inbaditzetik gure territorio libre bakarra izan daitekeen gorputza bera inbaditzera egon daitekeen tarte txiki horrek. Inpotentzia pentsatzeak zein hutsal bilakatzen den irakaslearen mahai gaineko hezkidetzari eta berdintasun planei buruzko berrogeita hamar orriko txostena, gure ikasleek horrelako mezuak pipekin batera irensten dituzten bitartean.

## Zorion agurrak




Manuel eta Maite

Zuen 43. ezkon urteurrena dela eta zorionak semearen partez. Askoz gehiago bete ditzazuela.



Malen

Zorionak! Ondo pasa familiaren partetik.



Arkaitz

Zorionak! Lankideekin parranda botatzeko aitzaki polita daukazu!



Axier

Zorionak lagun eta Xabaren partez! Egun ona pasa eta prestatu kartera trago errondarako!!!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

## Azoka txikia

## Higiezinen Eskaintza

- Autokarabana batentzat egokituriko garajea saltzen da. 56 metro karratu. 630 752 858.

## Lan-eskaria

- 31 urteko emakumea, saltzaile edo administratzaile lan bila nabil. 675 703 163, Berta.
- Gizona eskaintzen da eskutitzak edo publizitatea banatzeko. 943 364 527
- Tabernan zerbitzari lanetan aritzeko eskaintzen naiz. Esperientzia daukat. Urko, 622 219 175
- Garbiketa edo zaintzan lan egiteko prest interna zein externa moduan eta asteburuetan. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. 639089138
- Garbiketa edo zaintza lana asteburuetan,

gau eta arratsaldeak. Berehala hasteko prest. 639740900

## Bestelakoak

- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

## Heriotzak Jaiotzak

## Jaiotzak

- Aitana Iglesias Ramos, urriaren 28an.



## Heriotzak

- Jose Antonio Serrano Rezola, urriaren 28an, 75 urte zituela.



## Farmazia Goardiak

## EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 30	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Larunbata, 31	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 01	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 02	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astearte, 03	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 04	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 05	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521

**GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero**  
Echeveste Elozegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

## Udalaren telefonoak


Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

## Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



## Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557  
**Legezko gordailua:**  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
**Inprimategia**  
Zeroa Multimedia, S.A.  
**Aleak zenbakiko:** 7.800

## txintxarri

## Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.com**

## Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

## Informatikoa:

Xabier Amadoz

## KULTURARTEKOTASUNA

# Nazioarteko bazkariak gozatu

## Herritarrek platerak elkarbanatu ahalko dituzte

**Azken bi urteetan nazioarteko bazkariak Sasoe-ta-Zumaburu ikastetxean izan zuen arrakasta ikusirik, aurten ikastetxeak eta Burunzpe Guraso elkar-teak herritar guztiei zabaldu nahi diete ekimena eta Udalaren laguntzaz, azaroaren 15ean, Michelingo kirol gunean egingo da bazkari multikulturala.**



Udaleko eta Burunzpe Guraso elkarteko kidea aurkezpenean.

TXINTXARRI

**A**tzo arratsaldean, Sasoe-ta-Zumaburu ikastetxe-ko Burunzpe guraso elkarteko kide eta Lasarte-Oriako Udal ordezkariak azaroaren 15ean, 13:30etik aurrera, Michelingo kirol gunean antolatu den Nazioarteko eta eskualdeko bazkari multikulturala aurkeztu zuten.

Ekimena Burunzpe guraso elkarteko kulturartekotasun atalak duela bi urte hasi zuen eta orain arte, ikastetxe-ko kideek bakarrik parte hartu dute bazkari berezi honetan. Ekitaldiaren arrakasta ikusirik, aurtengoan Lasarte-Oria herri osoari zabaldu nahi diote parte hartzea.

Jesus Zaballos alkateak guraso elkar-teak urte hauetan egingo dako lana azpimarratu zuen. Gainera, Lasarte-Oria 50 nazionalitate desberdin baino gehiago daudela gogorarazi zuen.

Guraso elkarteko kideek azaldu legez, kultur aniztasun

hori altxorra da eta horregatik "elkar hobeto ezagutzen saiatuko gara leku bakoitzeko sukaldaritzaren bidez".

### Elkartrukea

Bazkarian elkartzen direnek haien herrialdeko plater tipikoak eskaini eta besteenak dastatzeko aukera izango dute.

Antolatzaileek atzo arratsaldeko aurkezpenean azaldukoaren arabera, familia bakoitzak 6 pertsonentzako platera eraman behar du eta errezeta prestatzeko 7 eta 10 euro arteko diru laguntza jasoko du.

Umek makarroiak haragiarekin (halal) eta tomatearekin jango dituzte; Burunzpe Guraso elkar-tea arduratuko da edariez. Elkar ezagutza sustatze aldera, errezeta ere eraman daiteke besteiei nola egiten den erakusteko.

Ekintza euskaraz eta gaztelerez izango da.

### Egitaraua

Baina ez da soilik plater tipikoen elkartruke eta dastaketa egingo soilik.

15:30ean, Katherin apolok kunbia doinuez beteko du kirol guneko pilotalekua eta 16:00etatik aurrera, heldu zein haurrek kultur aniztasun karaokean parte hartu ahalko dute.

### Izena ematea

Antolatzaileek jakitera eman zuten, bazkarian parte hartzeko beharrezkoa da izena ematea. Sasoe-ta-Zumaburu Ikastetxeetan dauden zerrendetan inskribatu edo 609 845 358 telefonoan ere eman dezakete izena interesatuek. Izen ematea azaroaren 13an, ostirala, itxiko da.

Udalak eta Burunzpe Guraso elkarteko kideek herritarrek gonbidatu nahi dituzte bazkari honetan parte hartzera.

## Kurdoen egoera aztergai

**X**irimiri elkar-tea libre Xuztearen alde hainbat ekintza aurreikusten dituzte elkarteko kide eta lagunek.

Hori dela eta, aste honetan, Xiriko afari-merienda saioak hasi dira. Hauetan, gai bati buruzko hausnarketa egin eta ostean, mokadutxo bat jan ahal dute bertaraten direnek.

Lehenengoa saioa asteazkenean egin zen. Honetan Siria eta Kurdistan izan ziren gaiak.

Lehenik Beñat Iriondok lasarteoriatar talde batek Siriara eta zehazki Alepo eta Damaskora 2009. urtean egindako bidaia azaldu zuen argazkien bidez. Herritarren adeitasuna eta meskitetan zegoen bizia nabarmendu zuen.



Txente Rekondo izan zen Xiriko afari-meriendetako lehen saioan.

Jarraian Txente Rekondok Ekialde Hurbileko hainbat herririk jasan duten jazarpena eta Turkiako egoera politikoa- ren laburpena egin zuen, gerora entzuleek Siria eta Kurdistanen bizi den egoera ulertzeko. Hala nola, kurdoak Sirian paperik gabeak direla

aipatu zuen eta horrek zailtasun handiak sortzen dizkiela.

Solasaldiaren amaieran, afari-merienda gozoa dastatu zuten.

Hurrengo saioa, azaroaren 25ean da, 19:30ean, Xirimiri elkar-tean. Honetan Kubaren egoera aztertuko da.

## EZ OHIKO UDALBATZARRA

### Ordenantzen aldaketa

Gaur, goizeko 9:00etan, Lasarte-Oriako Udabaltzarrak ez ohiko bilkura izango du. Bi gai aurkezten badira ere, bakarria eztabaidatuko da Batzarrean, 2016. urterako Ordenantzak aldatzeko espedientea onesteko proposamena, hain zuzen ere. Bestea berri emate bat da, 2015 urteko ekitaldian kredituak aldatzeko gaur arte bideratu diren dosierak.

## IKASTAROA

### Zure enpresa nola sortu ikastaroa

Lanbidek Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz 'Zure enpresa nola sortu eta kudeatu' doako ikastaroa antolatu du. Saioak azaroaren 17 eta 18an eskainiko dira, Villa Mirentxun. Bi txanda egongo dira, bata goizez 9:00etatik 13:00etara eta bestea arratsaldean, 15:00etatik 19:00etara.

Informazio gehiago eskuratzeko edo izen-ematea egiteko 943 304 221 telefonora deitu, [ekinean@andoain.org](mailto:ekinean@andoain.org) helbidera mezu bidali edo Lanbideko bulego batera hurbildu behar da.

## BEZEROAREN HAMABOSTALDIA

### 300 euroko sariak badu hartzailea

Aterpearen 'Bezeroaren Hamabostaldian' 300 euroko txeki bat zozketatu zen eta onuraduna Segundo Arnaiz jauna izan da. Zortekoak ONCEK urriaren 31n egin zuen zozketako zenbaki irabazlearen, 93803, azken 4 zifrekin bat zetorren 3803 txartela eskuratu zuen kanpainen zehar.

## HAUTESKUNDE ZERRENDAK

### Abenduaren 20ko hauteskundeetako errolda ikusgai

Espainiako Kongresu eta Senaturako abenduaren 20ko hauteskundeetako hautesle errolda ikus daiteke dagoeneko. Zerrendatik at edo behar bezala agertzen ez denak erreklamazioa jartzeko aukera izango du azaroaren 2tik 9ra Udaletxean edota Donostiako Hauteskunde erroldaren bulegoetan, Jose Maria Soroa kaleko 23an, Gros auzoan. 2015eko uztailaren 30era arteko egoera hartuko da soilik kontuan.

Zerrendak <https://sede.ine.gob.es> webgunean kontsulta daitezke.

## SAN TOMAS

### Azokarako postu eskaera

Abendua gertu dugu eta Ttakun elkarteko kultura saila San Tomas eguneko azoka prestatzen hasi da. Hori dela eta, San Tomas egunean, arratsaldean egingo den azokan, postua jarri nahi duten herritar edo elkar-teek abenduaren 15 baino lehen eskaera egin behar dutela jakinarazten du Kultura saileko arduradunak.

Bi baldintza bete behar dituzte batetik eguneko giroan txertatzea, hau da, baserriarrez jantzia joatea eta bestetik, harrera euskaraz egitea.

Izena ematea egiteko [kultura@ttakun.com](mailto:kultura@ttakun.com) helbidera mezua bidali behar dute interesatuek, honetan elkar-tearen izena edo taldearen arduradunaren izena eman behar da. Kultura saileko arduraduna ahal duen azkarren jarriko da harremanetan interesatuekin.

## UDAL WIFI ZERBITZUA

### Udal WIFI zerbitzuak aldizkako geldiketak izango ditu asteburuan

Lasarte-Oriako Udalak eraikin publikoetan eskaintzen duen WIFI zerbitzuak mozketak izango ditu asteburuan zehar. Ostiral arratsaldetik igande arratsalderaino (azaroaren 6tik 9ra) ez du ohiko funtzionamendua izango udal datu sarean aldaketak egingo dituztelako.

## AMARAUN KLUBA

### Sentimenduak ipuinen bidez lantzen

Lehenengoa azaroaren 9an, osteguna, 18:00etatik aurrera egingo da Amaraun Ludotekan. Saio hauek HH3 eta HH4 mailako haurrei zuzenduak dira eta ipuinen irakurketa, asmakizun, abesti eta poesien bitartez sentimenduak landuko dira haurrekin. Lehen saioan haserrea jorratuko da. Saioak ordu bete iraungo du.





Joxe Mari Auzmendi eta Arantzazu Muñoa Hazi Hezi aldizkaria

# “Hizkuntzaren transmisioak balio asko dauzka”

Hezkuntza Topagune izateko sortu zen Hiki Hasi, duela 20 urte; hezitzaileei zuzendutako Hiki Hasi aldizkaria eta formazioa ditu bizkarrezurrak. Orain 3 urte eta erdi, berriz, Hazi Hezi aldizkaria argitaratzen hasi ziren. “Ikusi genuen aldatzen ari zirela gizartea, familiak... eta gurasoek kezka asko izaten zituztela”. Heziketan eta hazieran, euskarazko beste baliabide bat sortu zen horrela.

Joxe Mari Auzmendi heraniarra da Hiki Hasi ko koordinatzailea, eta Arantzazu Muñoa irakasle eta kazetari zeraindarra, berriz, lan taldeko kideetako bat. “Hutsuneak ikusten ditugun tokietan saiatzen gara”, diote. Horrela sortu zen hezitzaileei zuzendutako Hiki Hasi proiektu pedagogikoa, eta horrela sortu zuten, duela 3 urte, gurasoei zuzendutako Hazi Hezi aldizkaria. Guztia, euskaraz.

Hain zuzen, 2016an Gipuzkoan jaiotzen diren haur guztien etxeetara Hazi Hezi aldizkariaren ale berezi bat bidaltzeko asmoa dago.

## Etxea, eskola eta komunitatea; ezinbesteko hiru hanka

Hiki Hasi duela 20 urte sortu zen, euskal hezkuntza proiektu propioa sortzeko. “Ikusi genuen irakasle askok ordurako klaseak euskaraz ematen zituztela, baina irakasleek, orokorrean, gaztelaniaz jaso zutela formazioa, eta lanerako ere, gaztelaniazko ereduak erabiltzen zituztela. Horregatik, Hiki Hasi aldizkariak eta hezitzaileei zuzendutako formazioak dira proiektuaren bizkarrezurra. Aldizkaria eskola guztietara bidaltzen da”.

Baina bestelako hutsuneak ikusi zituzten aurrerago. “Haurrek euskaraz ikasi, baina gaztelaniaz jolasten zuten. Horrela, pixkanaka bestelako materiala ere sortu dugu: haurren jolas abestiak, bideoak, musika lantzeko programak, umekin lantzeko Sarrionandiaren ipuinak... Etxera eta aisialdira begirako produktuak”.

Horrez gain, duela dozena bat urte beste hutsune bat ere sumatu zuten. “Ikusi genuen aldatzen ari zirela gizartea, familiak... eta gurasoek kezka asko izaten zituztela”. Horrela, Hazi Hezi aldizkaria sortu zuten, gurasoei zuzendua. “Ideia da eskolak, etxeak eta komunitateak (herria, aisialdia) ildo pedagogiko hezitzaile bera izatea”.



Arantzazu Muñoa eta Joxe Mari Auzmendi, Hiki Hasiaren Errekaldeko bulegoan.

*“Gurasoei zuzendutako aldizkariak mundu anglosajoitik datozen ereduak kopiatzen dituzte, eta Hazi Hezik hutsune hori bete nahi izan du, euskarazko arloan”*

## Heziketa eta haziera, euskaraz

Hazi Hezi aldizkariaren lau ale argitaratzen dituzte urtean. “Baziren gurasoei zuzendutako bestelako aldizkariak, baina guztiak erdaraz. Horietako askok mundu anglosajoitik datozen ereduak kopiatzen dituzte, edo, kasurik onenean, eredu espainolak eta frantsesak hartzen dituzte kontuan. Hazi Hezik hutsune hori bete nahi izan du, euskarazko arloan. Aditu euskaldunekin jorratzen ditugu gaiak. Bitartekari lana egiten dugu aditu eta gurasoen artean, eta lantzen dira euskal ikuskera eta hezkuntza propioa batetik, eta pedagogia berritzailea zein heziketa aktiboa bestetik”.

Heziketa eta haziera hartzen dituzte kontuan. “Saiatzeko gara haurrek beren garapenerako zein baliabide dituzten adierazten. Beren inizatibaz jarduten duten haurrak ditugu buruan, haur

autonomoak, sormendunak eta ekintzaileak. Azken batean, haurren garapena, gurasotasuna eta heziketa izaten ditugu hizpide”.

## Ale berezia, 2016an jaiotakoei

Gurasoek izaten dituzten kekei erantzuten saiatzen dira, eta ildo horretan, eta aldizkaria bera ezagutzera emateko, 2016an jaiotako haur gipuzkoarren etxeetara ale berezi bat bidaltzeko asmoa dago.

Hainbat gai landuko dira bertan: edoskitzea, mugimendu askea (umeen posturak ez behartzea), elikadura, zaintza, garbiketa, jolas askea, ingurunea eta natura, etxeko harremanak, familia mota desberdinak...

“Jolas askearen bitartez, segurtasuna lortzen dute haurrek, eta gainera, umek 8 urte ingurura arte, guztia ikasten dute jolasen bitartez. Ingurunearekin eta naturarekin harremanetan, berriz,

autonomia lantzen dute; herriek askotan erritmo artifizialak ezartzen dituzte, eta naturan, berriz, egur puska batekin jolastu eta aukera dute sortzeko eta bakean ibiltzeko. Bestalde, familia mota desberdinak erakutsi nahi izan ditugu: sexu bereko bikidek eta haurrak osatutako familia, bikotekiderik gabe ama izan denarena, kultura ezberdinetako bikoteek osatutakoa, aurretik beste haur bat zuen bikotekidearekin elkartu eta familia berria osatzen duenarena... Errespetua landu dugu, jaiotzetik hil arte, euskaraz, eta beharrak landuz”.

## “Euskara, balio inportantea”

Hiki Hasi hainbat baliabide sortu ditu, heziketa eta haziera euskaraz eskaintzeko. “Baliabideak eta tresnak badaude gaur egun. Gurasoak eta Irrien Lagunak klubarekin ere harreman zuzena dugu RSS jarioaren bidez; gurasoentzako diren gaiak zuzen-zuzenean partekatzen ditugu. Aisialdira begira ere, lan handia egin dute Gipuzkoako Urtxintxak, Elkarrek, Ereinek... Orain aukera gehiago dago. Horregatik, hutsunea ikusten dugun horretan saiatzen gara, eta ez, bada, goena errepikatzen”.

Argitaratu duten azken produktua, adibidez, kon-

*“Etxeko transmisioak izugarritzko garrantzia dauka. Guraso askok gaztelaniaz egiten dute beraien artean, eta umea gutxiestuta sentitu daiteke”*

tzentrazioa eta erlaxazioa lantzeko CD bat izan da, Marina Pintos piano-jole eta yoga irakaslearekin. Hau ere, noski, euskaraz.

“Euskaraz guretzat balio inportantea da. Hizkuntza transmisioak balio asko dauka. Etxean jasotzen ez bada, eskolak laguntzen du. Baina biak inplikatzeko inportantea da, bestela, aldeko jarrera jaitsi egiten da. Eta hirugarren hanka, herria da. Eragin handiena etxeak dauka, baina behar du, baita ere, eskolaren laguntza, eta herriarena, aisialdiarena. Hala ere, etxeko transmisioak izugarritzko garrantzia dauka. Guraso askok elkarren artean gaztelaniaz egiten dute, eta ezinbestekoa da euskaraz aritzea. Umek ikasten dute ikusten dutenetik, eta ez, esaten zaizenetik. Umek gutxiestuta sentitu daitezke ikustean gurasoak gai garrantzitsuen inguruan gaztelaniaz aritzen direla, eta berarekin, euskaraz. Baliok kentzen diote euskarari. Guk geuk, euskararen transmisioaren gaia familian, eskolan zein herrian lantzeari berebiziko garrantzia ematen diogu, eta behin baino gehiagotan idazten dugu gai horren inguruan, bai Hazi Hezi, bai Hiki Hasi. Horren erakusle da, adibidez, Hazi Hezi aldizkariako kontsultan atalean gurasoek dituzten hizkuntzaren inguruko zalantza eta kezkak argitzera bideratutako atala”.





**UMEENTZAKO HITZ GOXOAK**

<p><b>alolo joan:</b> lotara joan  <b>apapa joan:</b> kalera joan  <b>apatx(i) egin:</b> eseri  <b>arrekonkon:</b> magalean hartuta,  zaldiz bezala aritzea  <b>aupa:</b> besoetara jasotzeko  <b>bekeke:</b> ardia  <b>brun-brun:</b> motorra, traktorea...  (zarata handiko automobila)  <b>dantxa-dantxa:</b> dantza egitea  <b>enea:</b> esnea  <b>fu, fufu:</b> sua  <b>fufu egin:</b> suari putz egin  <b>kaxk:</b> kolpea (buruarekin...)  <b>kikak:</b> hortzak  <b>kixka-kixka:</b> ilea moztea  (kokolo): txokolatea  <b>kuku egin:</b> ezkutatu  <b>kurrin-kurrin:</b> txerria  <b>kukurruku:</b> oilarra  <b>lolo egin:</b> lo egin</p>	<p><b>mama:</b> ura  <b>mañak egin:</b> negar egin  <b>mox-mox, mix-mix:</b> katuari hots egiteko  <b>mumua:</b> aberea (behiak eta)  <b>ninia:</b> haur txikia  <b>ñañan egin:</b> jan  <b>pa eman:</b> musu eman  <b>(papa):</b> ogia  <b>papo egin:</b> ahitu, bukatu  <b>pipi egin:</b> pixa egin  <b>pipia:</b> txoria  <b>pipiripi:</b> oiloa  <b>pittito:</b> zakila  <b>pitxitxi:</b> katua  <b>pix-pix:</b> pixaren hotsa  <b>plixti-plaxta:</b> uretan ibiltzea  <b>popo:</b> automobila  <b>pottotta, potxotxina:</b> alua (sexua)  <b>punbala:</b> erortzearen hotsa  <b>pupua:</b> mina  <b>purrutt:</b> puzkerra</p>	<p><b>tax-tax egin:</b> jo  <b>trakatran-trakatran:</b>  <b>bizkarrean hartuta saltoka</b>  <b>ttaka-ttaka:</b> oinez ibiltzea  <b>ttatto egin:</b> jaitsi (besoetatik, koskatik,  eskaileretan behera...)  <b>ttette:</b> txupetea  <b>ttilin-ttalan:</b> kulunka, zabua  <b>ttipi-ttapa:</b> oinez ibiltzea  <b>ttirrin:</b> bizikletan // zilborra // txirrina  <b>ttotto, ttottua, au-au-au:</b> txakurra  <b>txalo-txalo-txin:</b> txalo jotzea  <b>txantxi:</b> jantzi  <b>txista egin:</b> ziztatu // sartu  (besoa mahukan...)  <b>txista-txista:</b> indizioa  <b>txitxia:</b> haragia  <b>xaxa:</b> sagarra  <b>xomorroa:</b> zomorroa  <b>zintz egin:</b> mukiak kendu</p>
---	--	---

Buruntzaldeko Udaletako Euskara Batzordeek osatutako hiztegia, umeen hizkera jasotzen duena.

## ETXEAK DU GILTZA

# Euskararen transmisioa, jaioberritatik

**Buruntzaldeko Udalek haurrak jaiotzen diren etxeetara bidaltzen dute material sorta bat, opari eta aholku izan nahi duena.**

**E**txeak du giltza deitutako sorta bidaltzen dute Buruntzaldeko Udalek, haurra jaiotzen diren etxeetara. Asmoa da, zoriontzia, batetik, eta, bestetik, etxeak euskararen erabileran duen garrantziaz jabeaztea.

Material horretan, bidaltzen dituzte zorion gutuna, umeentzako hitz goxoak biltzen dituen hiztegitxoak, lo kantua edota jolaserako doinuak biltzen dituen CDa eta autoan jartzeko pegatina. Buruntzaldeko 655 etxetara

bidali da material hori 2014an.

Datorren urtean, ordea, aldizkari bat ere izango da tartean: Hazi Hezi aldizkariaren ale berezia, guraso izan berri direnei zuzendua. Horrez gain, hainbat Udalek asmoa azaldu dute Hazi Hezi aldizkariaren urtebeteko harpidetza ere oparitzekoa, hala nahi duten gurasoei.

Honekin guztiarekin, Buruntzaldeko Udalek azpimarratu nahi dute haurren euskara erabileran familiak zer nolako pisua duen. Izan ere, kezkatzen dituen gaietako bat da, familia euskalduntan ere, helduen artean, gaztelaniara jotzen dela maiz etxean, eta horrek uste baino ondorio kaltegarriagoak dituela haurren erabileran.



Buruntzaldeko Udalek euskarazko hainbat produktu bidaltzen dituzte haur jaioberrien etxeetara.



## LABURRAK.-

## Buruntzaldea IKTko alebinak bikain Tolosan, ligako lehen jardunaldian

Denboraldi berria hasten lehenak izan dira Buruntzaldea IKTko alebinak. Tolosako Usabal kiroldegian aritu ziren pasa den larunbatean 2002 eta 2004 artean jaiotako neska-mutilak. Berrikuntzekin dator aurten alebinen liga. Espainiako Federazioak antolatzen du aurten eta erakunde horrek bideratuko ditu jokatu diren 7 jardunaldiak.

Lehenengo jardunaldia pasa den asteburuan izan zen, Tolosako Usabal kiroldegian. Igerilari denek bi proba izan zituzten aukeran: 400 libreko edo 200 estiloak. Guztira 22 gaztetxok hartu zuten parte jardunaldi horretan eta maila bikaina eman zuten, horietako asko sailkatu baitziren lehenengo postuetan. Leire Martin eta Ainhoa Martin ahizpak lehenengo eta bigarren izan ziren 2003koen 400 libre proban, hurrenez hurren. Era berean, mutilen artean Unai G. Somovillak eskuratu zuen lehenengo



postua distantzia horretan. 2004an jaiotako 200 estiloari dagokionez, Joane Arzalluz hirugarren izan zen, lehenengotik segundo eta erdira besterik ez. Infantil, junior eta absolutuen txanda izango da bihar; Neguko liga hasiko dute herriko kiroldegian, 16:00etan.

## Infantilen Euskadiko saskibaloia txapelketa irabazi du Aitor Anabitarte herritarra, Gipuzkoarekin

Infantil eta kadete mailako Euskadiko saskibaloia txapelketa jokatu ziren pasa den asteburuan Amurion (Araba). Infantil mutilen kategorian irabazi egin zuen Gipuzkoako selekzioak; Aitor Anabitarte herritarra izan zen kideetako bat.

Ostiralean Arabaren aurka neurtu zituen indarrak Gipuzkoak, eta nagusitasunez hartu zituzten mendean, 74-47. Final handia igandean jokatu zuten, Bizkaia aurka. Ostiralekoa baino dezente borrokatuagoa izan zen norgehiagoka; gogotik izerditu behar izan zuten gipuzkoarrek txapelketa irabazteko. Azkenean, 52-49 nagusitu ziren. Infantil zein kadete mailako txapelketa izan ziren Amurion jokatuak; emaitza bikainak erdietsi zituen Gipuzkoak. Infantiletan irabazle izan zen infantil mutilen zein nesken kategorietan, eta kadete nesketan ere bai.

Bestalde, Haizea del Olmo herritarra errendimendu juniorreko Gipuzkoako selekzioarako 16 jokalariko aurredeialdian sartu da. Igandean entrenatzen dute; ikusteke dago 12ko taldean sartuko den ala ez.



## ERRUGBIA.-

## Puertas Europako txapelkun

Herritarra 19 urtez azpiko Europako txapelketan aritu da

“Errugbiko baloia besapean” jaio zen Jon Ander Puertas herritarra, eta iragan larunbategi aurrera Europako 19 urtez azpiko txapelketaren garaikurra ere altzoan darama. Europako 19 urtez azpiko txapelketan aritu da herritarra Espainiarekin.

## IÑIGO GONZALEZ

Europako errugbi txapelketa bat ez da egunero jokatzeko, bizi artean ahazten ez den esperientzia horietako bat da, eta horrelaxe gogoratzen du Puertasek: “Izugarria izan da Lisboa bizitakoa, maila goreneko selekzioen aurka indarrak neurtzea eta estadioetako giro berezi hori sentitzea”.

Urriaren 25ean jokatu zuten lehenengo norgehiagoka, Alemaniaren aurka. 11-0 irabazi zuten, final aurrekoetarako sailkatuz. Errusia izan zuten arerio fase horretan, eta 30-7 nagusitu ziren ordukoan. Azkenik, final handian Errumania izan zuten aurrez aurre, eta 24-3ko markagailuarekin Europako 19 urtez azpiko txapelketa poltsikoratu zuten. “Maila handikoak dira hiru selekzioak, oso partiduko gogorrak izan ziren”.



Jon Ander Puertas (eskubian), Jon Zabala kapitainarekin eta Luis Benito delegatuarekin.

Ordezkoen aulkian hasi zituen Puertasek hiru norgehiagoka horiek, baina hainbat minutu jokatzeko aukera izan zuen eta jarri zuten haren hondar aletxo taldekideei laguntzeko eta Europako txapelketa eskuratzeko.

## Espero gabeko deia

Ezustean harrapatu zuen herriko jokalaririk gaztea Santiago Santos prestatzailearen deiak. “Denboraldi aurrea hasterakoan ez nengoen nire onenean fisikoki, harritu egin nau deiak egia esan”.

Joan den urteko azaroan izan zuen belauneko lesioa da horren arrazoia. Hainbat hilabete zelaietatik at pasa zituen Puertasek osatu arte.

Handik hilabete batzuetara errugbi nazionalako maila gorenean jokatzeko aukera emateagatik”, nabarmentzen du herriko jokalaririk gazteak.

urtez azpiko txapelketa irabazi berri du jokalaririk gazteak. Entrenamendu ordu asko daude horren atzean, baina baita beste elementu oso garrantzitsu bat ere: gurasoek eman dioten laguntza.

“Aitak errugbiaren alor teknikoaren inguruan ematen dizkit aholkuak eta amak psikologo lanak egiten ditu. Funtszkoa da euren laguntza, eskerrak ematen dizkiet babes hori emateagatik”.

12-13 urte zituela Hernani CRE taldera joan zen Puertas, eta joan den urtean egin zuen debuta Ohorezko Mailan. “Hernanin garatu naiz gehien jokalaririk gisara, inolako zantzaririk gabe. Eskerrak eman nahi dizkiot klubari, errugbi nazionalako maila gorenean jokatzeko aukera emateagatik”, nabarmentzen du herriko jokalaririk gazteak.

Artikulu osoa txintxarri.eus webgunean

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

- Larunbata 7  
**Michelin, 10:30ean**  
 Ostadar SKT - Billabona KE  
 Kadeteen I. maila, zortzigarren jardunaldia.
- Donostia, Felix Garin, 10:30ean**  
 S.A.N.S.E. - Ostadar SKT  
 Kadeteen Ohorezko maila, zortzigarren jardunaldia.
- Michelin, 13:30ean**  
 Ostadar SKT - Pasaia KE  
 Jubenilen Ohorezko maila, zortzigarren jardunaldia.
- Usurbil, Harane, 15:30ean**  
 Usurbil FT - Ostadar SKT  
 Jubenilen I. maila, zortzigarren jardunaldia.
- Michelin, 15:30ean**  
 Ostadar SKT - Orioko FT  
 Emakumeen Lurralde maila, zazpigarren jardunaldia.

**Michelin, 17:30ean**  
 Ostadar SKT - Tolosa CF  
 Ohorezko Erregionala, bederatzigarren jardunaldia.

Igandea 8  
**Michelin, 11:30ean**  
 Ostadar SKT - Munibe KT  
 Erregionalen I. maila, zortzigarren jardunaldia.

**Mutriku, San Miguel, 16:30ean**  
 Mutriku FT - Texas Lasartearra  
 Erregionalen I. maila, zortzigarren jardunaldia.

## ATLETISMOA

Igandea 8  
**Behobia, 10:00etan**  
 Herrikoak diren ehundaka korrikalaririk hartuko dute parte 20 kilometro luze dituen Behobia-Donostia lasterketa mitikoan. Aurtengoa 51. edizioa izango da.

## ERRUGBIA

Larunbata 7  
**Zarautz, Asti, 10:30ean**  
 ZRT Beltzak - Bera Bera  
 18 urtez azpiko liga.

**Zarautz, Asti, 11:45ean**  
 ZRT Beltzak - Bera Bera  
 16 urtez azpiko liga.

**Valladolid, Pepe Rojo, 16:30ean**  
 El Salvador - Babyauto Zarautz  
 Seniorrak, Ohorezko B maila.

## PILOTA

Larunbata 7  
**Michelingo frontoia, 16:00etan**  
 Intza KE - Eskoriatza  
 Gipuzkoako II. mailan, seniorrek azken jardunaldia jokatu dute; Igo mailako igoera faserako sailkatzeko aukerak dituzte herriko pilotariek.

Intza KE - Gure Txeru  
 Jubenilen II. mailako jardunaldia.

## SASKIBALOA

Larunbata 7  
**Kiroldegian, 16:00etan**  
 Ostadar SKT - Askatuak  
 Errendimenduko kadete neskek.

**Kiroldegian, 18:00etan**  
 Ostadar SKT - Eskoriatza KE  
 Partizipazioko junior neskek.

Igandea 8  
**Donostia, Paco Yoldi kiroldegia, 10:00etan**  
 Askatuak - Ostadar SKT  
 Partizipazioko kadete neskek.

**Donostia, Bidebieta kiroldegia, 12:00etan**  
 Easo 99 - Ostadar SKT  
 Errendimenduko junior neskek.

## TENISA

Larunbata 7  
**Michelingo kirol gunea, 14:00-18:30**  
 Asteburu honetan hasiko da LOKE klubaren tenis adarrak antolatutako eskolarteko txapelketa.

## ARETO-FUTBOLA

Herriko txapelketako zortzigarren jardunaldia jokatu dute taldeek.


Ostirala 6  
**Michelingo kirol gunea, 19:45ean**  
 Txindoki - Urdaneta HK  
**Michelingo kirol gunea, 20:45ean**  
 Izkiña - Indaux

Larunbata 7  
**Michelingo kirol gunea, 9:15ean**  
 Trumoi - Viña del Mar  
**Michelingo kirol gunea, 10:15ean**  
 Ilargi - Also  
**Michelingo kirol gunea, 11:15ean**  
 Reformas Lagunak - TSST  
**Michelingo kirol gunea, 12:15ean**  
 El Punto - Kattagorri Insausti

**Bera, Toki Ona Kiroldegia, 17:15ean**  
 Gure Txokoa KE - Cecilia Ostadar  
 Gipuzkoako II. maila.  
**Urretxu, Aldiri kiroldegia, 18:00etan**  
 Goierri KE - Ostadar Antonio  
 Nazional Ligako III. maila.

## Agenda

Gaur, Arrieskalleta elkarte, 21:00etatik aurrera



### Bertsoak, txismeak eta jaki gozoak

Gaur, 21:00etatik aurrera Arrieskalleta elkarten bertso-afari berezia izango da. Afari gozoa dastatu ostean, Patxi Etxeberria eta Ane Labaka bertsolariak izango dira aurrez aurre. Bi belaunaldi ezberdinetako bertsolarien trebeziaz gozatzeko aukera izango da. Biek Mailu Arrutik proposatutako gai erantzun beharko diete. Honek antzerkitxo bidez, txismeak eta kontuak azalduko ditu elkartearen. Afarirako txartelak daude oraindik salgai Jalgin. Txartelak 20 euro balio ditu.

### BAI II. Topaketak

VILLA MIRENTXU

Osteguna 12, 18:30ean

'Elkarbizitza Gipuzkoan' mintegia eskainiko du Maribel Vaquero Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendari Nagusiak.

### Erakusketa

ANTONIO MERCERO GUNEA

Azaroaren 2tik 15era

Lan eta Lan antzerki taldearen 18. urteurrena ospatzeko atrezzo eta jantzi erakusketa izango da.

### Usurbil

### Musika

SUTEGI

Ostirala, 20:00etan

Mikel Urdangarinen bakarkako kontzertuaz gozatzeko aukera Noaua! Kulturaldiaren barruan. Sarrera 10 euro (aldez aurretik 8 euro Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan). Noaua!ko bazkideek 6 eurotan erosi ahal izango dute Noaua!ko egoitzan aldez aurretik.

### Kilometroak

HERRIAN

Larunbata, 13:00etatik aurrera

Eskertza jaialdia egingo daute Kilometroak-eko antolatzaileek. Egitaraua: 13:00etan, Lotzen GaTTunk abestia guztion ahosketara Mikel Laboa plazan; 14:30ean, Herri bazkaria frontoian; 18:00etan, Erromeria frontoian. eta ondoren, herriko musika taldeen kontzertua frontoian.

### Lasarte-Oria

### Musika

BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala, 19:30ean

"Entre donaires y burlas" kontzertu barrokoa antolatu du Danok Kide elkarteak XII. Musika Topaketen baitan. Honetan arituko dira Ivan Moreno tiorba eta laudarekin, Amaia Larrayoz eta Marta Santolaya sopranoekin. Sarrera doan.

### Zinea

MANUEL LEKUONA

Ostirala, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen eskutik, "Amama" filma eskainiko da. Euskaraz

gaztelarazko azpitoluekin. Sarrera 5,50 euro. Asier Altuna zuzendaria bertan izango da eta hasieran solasalditxo bat egingo da.

MANUEL LEKUONA

Igandea, 17:00etan

Haurren zine atalean "Minuculos: El Valle de las hormigas perdidas" animaziozko filma ikusi ahalko dute etxeko txikiek. Bi inurri familien arteko harremana erakusten du. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA

Igandea, 19:30ean

Helduen zine atalean, "Amama" filmaren bigarren emanaldiaz gozatu ahalko da. Euskaraz gaztelarazko azpitoluekin. Sarrera 5,50 euro.

### Antzerkia

MANUEL LEKUONA

Larunbata, 19:30ean

Lan eta Lan antzerki taldearen 18. urteurreneko ospakizunen barruan. "El cianuro ¿solo o con leche?" lanaren irakurketa dramatizatua egingo dute taldeko kideek. Sarrera 3 euro. Gaztelaraz.

MANUEL LEKUONA

Ostirala 13, 19:30ean

Boguslaw Schaeffer egilearen "Ensayo para siete" antzezlan moldatua eskainiko du Donostiako Teatro Estudiok. Aurten 50. urteurrena ospatzen du antzerki taldeak eta bi emanaldi eskainiko ditu Lasarte-Orian. Danok Kidek sustatua. Sarrera doan. Gaztelaraz.

## Herritarren txokoa

### 62an jaiotako afaria

1962an jaiotako afaria antolatuko da, azaroaren 14ean, Donostiako Kaskazuri jatetxean.

Menua 40 eurotakoa da eta Laboral Kutxako ES78 3035 0036 12 0361135678 kontu korrante zenbakian egin behar da diru sarrera.

Harremanetarako, 646 274 376, Beatriz.

### 63an jaiotako afaria

Aurten ere 63an jaiotako afaria antolatuko da. Azaroaren 21ean, 21:00etan, Goiegi Jatetxean egingo da afaria. Aurrez, Okendo plazan geratuko dira 20:00etan pote bat hartzeko.

Menua 36 eurotakoa da eta Laboral Kutxako ES13 3035 0036 150361135634 kontu korrante zenbakian egin behar da diru sarrera.

Informazio gehiago, Agustin Markos, 600 799 772 edo J.F. Solano, 657 770 318.

### 55ean jaiotako afaria

1955ean jaiotako afaria antolatuko da azaroaren 21an. Informazio gehiago eskuratzeko deitu zenbaki hauetara Begoña 678 90 34 99, Mariano 658 70 64 73 edo Mariasun 627 70 12 41.

### 65ean jaiotako afaria

1965ean jaiotako afaria egitea pentsatu dugu. Hau azaroaren 28an izango litzateke gure lehenengo 50 urteak ospatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko Olga 687 845 623 edo Idoia 653 712 373.

## Sarean

### Code.org euskaratzeko maratonia

Udako Euskal Unibertsitateko kideek erronka bat dute Euskararen Egunerako Code.org orrialdea euskaraz argitaratzea. Horretarako, Code-org Itzulpen-Maratoia antolatu dute bihar, azaroaren 7an, larunbata, Donostia - EHUko Informatika fakultatean.

Kidek azaltzen dutenez, Code.org erakundeak konputagailuen programazioaren oinarriko kontzeptuak ulertzeko eta haiekien jolasteko oso webgune erakargarria sortu du. Web aplikazio hori 37 hizkuntzatan erabil daiteke, baina euskaraz oraindik ez.

Lana hasita dago, UEUko udako ikastaroan lanaren laurdena egin zen. Baina oraindik azken urratsak falta zaizkie. Prozesu honetan lagun gehiago biltzeko, eta ekinbide komunitario eta ludiko bihurtu arren, itzulpen-maratoia antolatu dute. Gainera, maratoni-saioan gehien itzultzen duenak saria eskuratuko du.

Bertan parte hartzeko azaroaren 4a baino lehen izena eman behar zen UEUko orrialdean. Baina aukerarik izan ez dutenek, etxetik itzulpenean laguntzeko aukera dute. Honi buruzko informazioa web orrialdean dago eskuragarri. Bertan Code.org euskaratzen hasteko gida laburra dute interesatuek eta itzulpen prozesu osoan gehien itzultzen duenak ere saria izango du. Sari hau Euskararen Egunean banatuko dute.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info



Asier Altuna Zine zuzendaria

## “Belaunaldien arteko hausturaren gainera, balioak transmititzen diren ideia finkatu nahi izan dut filmean”



Gaur 22.00etan Manuel Lekuona kultur etxean izango da Asier Altuna 'Amama' filma aurkezten, Okendo Zinema Taldearen eskutik. Zuzendari bergararraren hirugarren lan luzea da, 'Aupa Etxebeste!' (2005) eta 'Bertsolari' (2011) dokumentalaren ostean. Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiatu eta Euskal Zinemaren Irizar Saria irabazi du.

MARTIN VICIOSO

**B**elaunaldien arteko gatazka, landa eremu eta hiriaren artekoa... Azken batean, bizimodu kontrajarriak aurkezten dizkigu Asier Altunak 'Amama' filmean. Baina ororen gainera, guztiak elkartzen gaituena. Baserriari egindako omenaldia da. Garai batean bezala ezagutzen zen moduan agortzearen elementu bati. Eta aldi berean, bere baloreak aldarrikatzen ditu gaur egunerako.

**Gaur Lasarte-Orian izango zara filma aurkezten. Orain arte ikusleekin izandako hartu emanak nolakoak izan dira?**

Orain artekoak oso onak. Filmea bukatzean asko hunkitu egiten dira, eta oso egoera berezia sortzen da. Baserriko bizimodutik gertu bizi eta bizi izan diren pertsonen oso gertuko sentitu dute istorioa eta, horregatik, iritsi zaion jendea-ri asko iritsi zaiola uste dut. Leku guztietan izan dira pertsonaiaren batekin identifikatuta sentitu izan diren pertsonak.

**Euskal Herrian ez ezik Erroman, Montpellierran eta Mar del Platan filma aurkezteko parada izan**

**duzue. Zer nolako harrera izan duzue?**

Pertsonalki, harreman zuzena Erroman eduki dut soilik. Montpellierrera joateko asmoa genuen, baina ezin izan gara hara joan eta Argentinara filma bakarrik doa. Izan ere, urrutiko dago eta azken hilabetetan eduki dugun lan karga eta gero, geratzeko ordua iritsi dela ondorioztatu dugu.

Dena den, Italian, hemen bezala, ikusle berotasuna jaso genuen. Oso berezia izan zen. Euskal Herriatik kanpora 'Amama'-k zer nolako erantzuna zuen ikusteko asmoa bagenuen, eta asko hunkitu egin ziren. Esaterako, pertsona bat musikarekin nahiko harriztuta geratu zen. Euskarari buruzko galderak ere izan ziren.

**Musika Mursegok eta Javi Pezek egin dute, eta filmari intentsitatea ematen lagundu diote.**

Hala da. Javirekin lehenago ere egin dut lan eta argi nuen berarekin jarraitu nahi nuela. Bestalde, azkenaldian Maite- ren musikarekin nahiko obsesio- natua nabil eta bere musika 'Amama'-n izatea aukera erakargarria zen niretzat. Batez ere, cello-ak ematen dizkizun irakurketa

ezberdinak direla eta. Asko jolasten du tresna jotzeko moduekin eta lortzen dituen melodiak batzuetan, soinu klasikoetara eramaten zaituzte eta besteetan, moderno-agoetara. Adibidez, elektronikara Filmean nekazal munduaren eta hiriaren arteko kontrastea nabarmentzen da, eta bien arteko zubi egokia izan zitekeela pentsatu nuen. Kolore askotako tresna da cello-a.

**Baserriaren eboluzioa nabarmendu duzu hainbat adierazpenetan. Ezberdinak dira gaur egungo baserria eta umetan ezagutu zenuen hura?**

Noski. Ez dute zerikusirik bata bestearekin. Esaterako, garai batean oso familia handiak bizi ziren baserri berean. Batzuetan, hiru eta lau belaunaldi. Gaur egun famili nukleo txikiagoak izaten dira, eta baserria bera zatitu egiten da funtzio ezberdinak emanez. Soziologikoki ere aldatetako nabarmenak dira nire ustez. Gizartea aldatu egin da azken 30 edo 40 urtetan. Baserriak, agian, aspaldiko garrantzia galdu du. Nekazal giroak indarra galdu du, eta gaur egun hirietan dugun bizimodu urbano honek ez du zerikusi handirik umetan ezagutu nuenarekin. Dena den, eboluzio nahiko naturala izan duela uste dut

**Filmeko pertsonaia nagusiak, bai Amaia (Iraia Elias) baita bere aita Tomas (Kandido Uranga) ere izaera**

**indartsukoak dira, gustura zaude aktoreek eginiko lanarekin?**

Bai, oso gustura. Konfiantza handia nuen Kandido Urangak eta Klara Badiolak egingo zuten lanarekin. Izan ere, esperientzia handiko aktoreak dira. Gidoia idazten nuen heinean haiek irudikatzen nituen Tomas eta Isabelen paperetan, eta beraz, egingo zuten antzezpena ona izango zela ziur nintzen. Zineman ibilbide motzagoa duten Iraia Elias, Amparo Badiola, Ander Lipus eta Manu Uranga ederki egokitu dira.

**Hasieran hiru anai-arrebak karakterizatu egiten dituzte bakoitzari kolore bana emanez. Zer bilatu duzu pertsonaiek karakterizazio horrekin duten gatazka irudikatzean?**

Horrekin nabarmendu nahi nuen famili askotan, ez soilik baserriaren munduan, joera izan dela ondorengo estatusa eta rola definitzeko. Alegoria egin dut, jolas moduan eta handizkatzen, hori irudikatu nahian. Koloreak erabili nituen ikus-efektu argia sortzen dutelako eta ikuslearen eragina izatearren. Azken batean, joko zinematografikoa da.

**Filmean amamak bilobari jakinduria transmititzen dio. Gizartean transmisio hori eman al da?**

Nire ustez, garai bateko balioetatik beti geratzen da zerbait. Baserrietatik oso gertu bizi izan den gizartea gara.

Ikusle goan asko suma daiteke hori. Bada gaur egun hirian bizi den eta azalean oso 'urbanita' dirudien jendea hunkitu egiten dena bizimodu honetan oinarritutako istorio honekin.

Ideiak asko konturatu gabe transmititzen dira belaunaldiz belaunaldi. Balio asko oso barneratuak ditugu, eta filmean hori finkatu nahi izan dut 'orain dela 80 amama neolitikoan bizi ginen' esaldiarekin. Nahiz eta apurketak izan eta belaunaldien artean gizartean bizimodu aldaketa izugarriak eman daitezkeen, transmisioa beti hor egongo da. Aurretik datorrena nire baitan izateak, egia esan, lasaitasun handia ematen dit. Izan ere, dena galtzea tragedia handia litzateke.

**Gero eta gehiago dira auzolana eta elkarren arteko kooperazioa aldarrikatzen dituzten pertsona eta kolektiboak. Berreskuratzen ari dira garai batean baserrietan ohikoak ziren jarrera eta lan egiteko moduak?**

Arlo horretan ez dakit ziur non gauden. Pentsatu nahiko nuke benetan berreskuratuko ditugula, elkarlanean oinarritutako ideiak oso interesgarriak iruditzen baitzaizkit. Egun kapitalismoak planteatzen duen bizimodua ez da batere osasungarria eta balio kolektiboak bigarren planoan geratzen dira. Dena da erabili bakarrek. Auzolanarekin, naturarekin eta baserriarekin zerikusi handia duten balore horiek beharrezkoak ikusten ditut eta begirada horietan fokotzea ez legoke batere gaizki, gaurko gizartea zelatik dagoen ikusi behar besterik ez baitago. Kontsumoa, dieta eta beste hainbat ikuspuntutik baserri buelta egitea gustatuko litzaidake, kontzeptu aldaketa behar baitu gure bizimoldeak.

**Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean bi urtetan jarraian euskarazko filmak lehiatu dira. Joerak jarraituko du?**

Espero dut baietz. Garrantzitsuena zinema egiten jarraitzea da. Segitu behar dugu sortzaileak laguntzen, haiek gabe arterik ez baitago. Ekonomiaren ikuspuntutik, zinea egitea oso zaila da. Nire ustez, gauza berriak gehitzea interesgarria da, eta eginez gero, Zinemaldian eta beste ekitaldi inportanteetan euskal kulturak presentzia izango du.